

37.zb

Urtarrila



Asteazkena

ABE



Laura, Ander, Danel, Kimetz

www.amaraberi.org

amaraberrimor.abe@gmail.com

Zadorra ibaian daude kezka



Gasteizen eta inguruan hainbat tokitan egin du gainezka zadorrak. Kostaldean, marea goiti izan da 17:23an, eta larrialdi zerbitzuak alertan daude Euskal Herriko hainbat tokitan. Ilunabar partean, alarma egoera baretu da Bizkaian eta Gipuzkoan, baina oranidik ere erne jarraitzen dute, baita Lapurdin ere, Aturri eta Errobi ibaien egoekin kezkatuak. Nafarroan batez ere bigarren mailako errepi-

deei eragin diete uholdeek.

Otsailan Errealaren berrikuntzak.

Otsailan Errealak berrikuntzak egingo ditu bere plantilan. Kontratua bukatzen zaien bere lau jokalariekin hitz egingo du, hauek dira: Diaz De Cerio, Markel Bergara, Eñaut Zubikarai eta azkenik Xabier Castillo.



editoriala

Kaixo gu Laura, Ander, Danel eta ni Kimetz gara A.B.E hau egin duguzuek irakurtzeko. A.B.E honek zuen gustoko gauzak ditu. Agur eta beste bat arte!

a u r k i b i d e a

- 1.- PORTADA: Zadorra ibaia eta Berrikuntzak Errealean.
- 2.- INKESTA: Zein da zure janaririk gustokoena?
- 3.- SASKI NASKI: La vida de los monos.
- 4.- LUMAREN KILIMA: Eskutitza.
- 5.- GU ERE IDAZLE: Euritsu eta izpia.
- 6.- ENTRETENIGARRIAK: Gurutzegrama.



gaur eta hemen

Ostiralean Lauraren azken eguna da. Abarzuzara joango da. Onda pasa Laura eta idatzi.



ZEIN DA ZURE JANARIRIK GUSTOKOENA?

I
N
K
E
S
T
A



Xabi:

Espaqueti ala bo-
loñesa.



Andrea:

Txokolatea.



Joan:

Borrajak.



Ibai:

Pizza.



Ander:

Pizza.



Emily:

Txuleta.



Kevin:

Pizza.



Jaione:

entsalada.

Inkestaren emaitzak

Gehieneri pizza gustatzen zaie

LOS MONOS

- 1-Los monos se comunican chillando.
- 2- Sus gritos pueden decir :
venir rápido he encontrado una fruta.
- 3-Las parejas no solo son parejas, también cantan juntos.
- 4-La madre si lleva una cría puede que puede que cante como ellos.
- 5-Los gritos son suenan como Tarzán pero mas fuertes.
- 6-La cara no es la única parte del cuerpo que sirve para hablar.
- 7-Los Popiones se comunican haciendo señales .
- 8- Los chimpancés cuando están asustados enseñan los dientes y ríen cuando están contentos .
- 9-Cuando están tristes parece que lloran.
- 10- Muchos monos pueden gritar más que un cantante de ópera .
- 11- Cuando los gorilas se encuentran , gritan , rugen, rompen matorrales y se golpean en el pecho.
- 12-Generalmente el mas pequeño se va antes de que resulte herido .
- 13- El Tití habla y chilla .
- 14- Cuando los Titís se desplazan cuchichean como una banda de pájaros
- 15- Algunos monos reflejan las expresiones en su cara.
- 16-El Tamarino mide como una ardilla.



*Egilea:J
ulen Ortiz*

LUMAREN KILIMA

SENTSAZIO ZIRRARAGARRIAK

Oporretan nago lagunekin eta gurasoekin.

Etxe bat alokatu dugu hilabete baterako.

Etxe haundi eta polita da, terraza eta balkoia dauzka

zelaiez inguratuta dago, urrutiago herri bat dago eta etxearen atzeko aldean basoa. Etxeko beheko pisuan sukaldea, egongela, jantokia eta komuna daude eta goian gurasoen gela beste komuna eta gure gela, laguna eta nerea. Gauean soinu arraro batek esnatu egin nau eta basotik zetorrela enteratu naiz orduan zerbaitek hartu nau eta karraxika hasi naiz ahh!

Orduan esnatu egin naiz eta amets bat zela konturatu naiz.

EGILEA: ANE
BENGOETXEA



GUERE IDAZLE

EURITSU ETA IZPIA

Bazen behin euritsu izeneko herri bat. Egunean 5 minutuz egiten zuen eguzkia! Euritsu oso isila zen, han euri asko egiten zuelako. Umeak ez zuten asko jolasten. Euritsun jendeak ez zenkan umore nahiko ona.

Egun batean Euritsun ortzadarra atera zen eta... Txiiiiiiiiiiiis! ortzadarretik eguzki izpi bat atera zen. Lehenengo jendea handik kanpo bota nahi zuen eta izpiak agindu zien hodeiei kentzeko eta eguzkia betirako jartzeko. Herritarrak pentsatzen hasi ziren eta haietarik batek proposatu zuen: -Bai!!!!!! Ongi!!!!!! Hobeto zergatik ez? Izpiak horrela egin zuen, zerura igo eta... Puffffff! Izpia desagertu zen eta eguzkia baharrik ikusten zen zeruan.

Handik aurrera Euritsun jendea alaiagoa zen. Umeak egunero ari dira jolasten. Biztanleak umore oso ona dute ez du euri gehiago egin eta horren ondorioz Euritsuri izena aldatu zioten, orain eguzkitsu deitzen da

Alvaro Martinez



E G U R A L D I A

Data: 2009ko Urtarrilaren 27a

Urtaroa: Negua

TENPERATURA

Momentu honetako tenperatura: 9°

Atzoko tenperaturarik beroena: 15°

Gau honetako tenperaturarik hotzena: 13°

Zerua: Goibela

Lurra: Bustita

Haizea

Haize mota: Barea

Haizearen norabidea: Mendebaldetik dator

Euria dabil

Jasotako euri kantitatea: 40 litro m²ko



Euria

Esaera zaharra: Otsoak ez du negua jan

